



Maiatzaren

26an

13:00ean
plazan



Gaur, euskara praktikatu
Bihar, euskaraz bizi!

**Ermuko
Mintzodromoa**



etorri
parte hartu
hitz egin



Ermua centro comercial
ERMUKO MERKATU ETA OSTALARI ELAKITEA
ASOCIACIÓN DE COMERCIANTES Y HOSTELEROS DE ERMUA



kaltzango euskaltegia



Udal Euskaltegia



Euskal Birusa
Euskararen



ERMUKO UDALA



BIFA
BIZIKULTURAREN



BIZIKULTURAREN
BIZIKULTURAREN

Mintzodromoa




Nola egingo dugu ?

Mintzodromo hau egiteko **seinaka** eseriko gara mahaietan. **3 mintzagai** izango ditugu eta mintzagai bakoitza **20 minutukoa** izango da. Saio bakoitzean mahaiz aldatuko gara, beste **5 solaskiderekin** aritzeko. Aurten, baina, azken gaian, mahai bakoitzeko 3 kide gazte mintzodromora joango dira. Eta gazte mintzodromotik beste hiru etorri.

Mahaiz aldatzeko ondoko argibideei jarraitu behar zaie:

- Edozein mahaitan eserita zaudela, zure mahai zatian, zenbaki bat izango duzu idatzia (0--5)

- Bigarren mintzagaia hasten denean zenbakiak esango dizu zenbat mahai aurreratu behar duzun. Adibidez, nire zenbakia **3.bada**, horrela mugituko naiz. Erlojuaren orratzen norabidearen kontrako bidea egingo dugu.



- Hirugarren mintzagaia heltzean, baina,
- mahai bakoitzeko hiru kide ondoko mintzodromora joango dira.
- Orain...praktikatzera!

Ermuko lanak: Etorkizun hobeak?

- >> Aldaketak hasi badira ere, hamaika lan gelditzen da egiteke Ermuan. Denak egokiak iruditzen zaizkizue?
- >> Saihesbidea, Tren geltoki berria eta tunela, plazako kiosko aldaketa, estalkia eta sarbide berria (baserria, estanko zaharra eta sakristia kenduz).....
- >> Eta....zer deritzoze edukiontzi-txartelari? Zentzurik?

Merkatu plazarekin...zer egin genezake?

- >> Oraindik ez omen dago argi zer erabilera emango dion Udalak azokari. Zer egingo zenuke zuk?
- >> Zer da hobe, berrerabiltzea edo, besterik gabe, bota eta...
- >> zilegi deritzozu saldu eta interes pribatuen esku lagatzeari?

Euskara eta gazteak (gai hau gazte-mintzodromoko gazteekin batera jorratuko dugu)

- >> Gazteen erabilera ermuko batezbestekoaren azpitik dago (%9,4). Zer egin genezake gazteen erabilera handitzeko?
- >> Ba al da erakargarria euskara gazteentzat? Ez bada...zer dela-eta?
- >> Zer gehitu, zer aldatu, zer kendu....beharko genuke...?



Maiatzaren

26an

13:00ean
plazan



GAZTE

Gaur, euskara praktikatu
Bihar, euskaraz bizi!

Mintzodromoa



etorri
parte hartu
hitz egin



ermuacentrocomercial
ERMUKO MERKATARI ETA OSTALARI ELAKITEA
ASOCIACIÓN DE COMERCIANTES Y HOSTELEROS DE ERMUA



kaltzango euskaltegia



Udal Euskaltegia



ERMUKO UDALA



BIFA
BIZIKLETAK
BIZIKLETAK
BIZIKLETAK



Mintzodromoa




Nola egingo dugu ?

Mintzodromo hau egiteko **seinaka** eseriko gara mahaietan. **3 mintzagai** izango ditugu eta mintzagai bakoitza **20 minutukoa** izango da. Saio bakoitzean mahaiz aldatuko gara, beste **5 solaskiderekin** aritzeko. Aurten, baina, azken gaian, mahai bakoitzeko 3 kide beste mintzodromora joango dira. Eta beste mintzodromotik beste hiru etorri.

Mahaiz aldatzeko ondoko argibideei jarraitu behar zaie:

- Edozein mahaitan eserita zaudela, zure mahai zatian, zenbaki bat izango duzu idatzia (0--5)

- Bigarren mintzagaia hasten denean zenbakiak esango dizu zenbat mahai aurreratu behar duzun. Adibidez, nire zenbakia **3.bada**, horrela mugituko naiz. Erlojuaren orratzen norabidearen kontrako bidea egingo dugu.



- Hirugarren mintzagaia heltzean, baina,
- mahai bakoitzeko hiru kide ondoko mintzodromora joango dira.
- Orain...praktikatzera!

Euskara Ermuan: Etxean, kalean, ikastetxean, zer?

- >> Etxe eta ikastetxe barruan bai; etxetik kanpo eta ikastetxe kanpoan ez. Zergatik?
- >> Erabilera beti egoten da euskararen ezagutzaren azpitik, Jendeak jakin bai, erabili ez, zer dela-eta?
- >> Ermuan beste herri batzuetan baino gehiago ala gutxiago hitz egiten da? Zeintzuk dira arrazoiak??

Euskara eta kirola. Badago biak uztartzerik?

- >> Gazte askok egiten du gaur egun kirola. Baina..zein hizkuntzatan?
- >> Komeniko litzateke kirolean ere euskara izatea komunikatzeko hizkuntza nagusia? Zergatik? Zergatik ez?
- >> Antza denez, gaztetxoek nagusitzen diren heinean gero eta euskara gutxiago erabiltzen dute kirol lehiaketetan. Egia ote ?

Euskara eta gazteak (gai hau gazte-mintzodromoko gazteekin batera jorratuko dugu)

- >> Gazteen erabilera ermuko batezbestekoaren azpitik dago (%9,4). Zer egin genezake gazteen erabilera handitzeko?
- >> Ba al da erakargarria euskara gazteentzat? Ez bada..zer dela-eta?
- >> Zer gehitu, zer aldatu, zer kendu....beharko genuke...?